


JARDUNALDIA

PSIKIATRIA ZERBITZUAREN 25 URTEURRENA. 1995 – 2015



ABENDUAREN 15

**GALDAKAO-
USANSOLO
OSPITALEA.**

ARETO NAGUSIA

25 urte bete dira Galdakao-Usansolo Ospitaleko Psikiatria Zerbitzua zabaldu zenetik. Psikiatria Osakidetzan sartu zen hasierako espezialitateetako bat izan zen, 1986. urtean, hain zuzen ere. Galdakao-Usansolo Ospitalean, Desintoxikazio-Unitate gisa hasi zen 1987an, eta 1990ean, berriz, Psikiatria Zerbitzu gisa. Zerbitzua zabalteak Bizkaiko asistentzia psikiatrikoa bereiztea ekarri zuen.

Adierazitakoa dela eta, jardunaldi bat antolatuko dugu **abenduaren 15ean**. Izen-ematea doan izango da, eta lehenetsuna izango dute Osakidetza Asistentzia Psikiatrikoan diharduten profesional asistentzialek: besteak beste, Psikiatreek, Psikologo Klinikoeak, BADE-BAME, Erizainek eta Gizarte Langileek. Jardunaldian, iragana aztertzea baino haratago joan, eta etorkizun hurbilera begiratzen saiatuko gara, psikiatriako asistentziaren zein osasun mentaleko arretaren etorkizuneko helburuak igarri nahian. Etorkizunera begiratze horrek, batetik, gure lan asistentziala garatzen lagunduko digu, eta, bestetik gaixotasun mentala duten gaixoen beharrei arreta egiteko orduan aurreratzeko aukera emango digu, azken hau gure lanaren abiapuntua eta izateko arrazoia izanik. Jardunaldian hauexek parte hartuko dute: Bizkaian osasun mentaleko zerbitzuak dituzten Osakidetza erakundeetako profesionalek, baita beste zenbait arlotako gonbidatuek ere.

Jardunaldia eztabaidarako gunea izatea nahi genuke, eta ekarpen zientifikoak izango badira ere, iritzien trukaketa ere izango da; azken hori, askotan baztertuta geratzen baita, aurkezpenei emandako lehenetsuna dela-eta. Hori horrela, Jardunaldia 25x3 formatuan eskainiko dugu —TED hitzaldien antzekoa—, eta denbora horrelaxe antolatuko da: mahai bakoitzean 75 minutuko —ordu eta laurdeneko— eztabaida; moderatzailearen eta hizlarien aurkezpena, guztira, 25 minutukoa; mahaikideen arteko eztabaida 25 minutukoa, eta, azkenik, parte-hartzaile guztien arteko eztabaida beste 25 minutukoa izango da.

Jardunaldiaz gain, Zerbitzuaren 25 urteurrena ospatze aldera, beste hauek ere antolatuko dira: batetik, Patologia Dualeko Jardunaldiak, abenduaren 2an eta 3an, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearen laguntzaz, eta, bestetik, 2016ko lehen hiruhilekoan izango direnak. Horietan, Zerbitzuan trebatu edota lan egin duten profesionalek zenbait aurkezpen eskainiko dituzte.

Abizenak	
Izena	
Lanbidea	
Lab zentroa	
Lan zentoaren helbidea	
Helbide elektronikoa	Faxa:
Sinadura	Data 2015eko..... arena

Faxeiz (944 007 132) edo posta elektronikoz HGU.PSIQUITRIA@osakidetza.eus bidali

* Izen-ematea doan da, eta lehenetsuna izango dute Osakidetza Asistentzia Psikiatrikoan jarduten duten profesional asistentzialek (Psikiatreek, Psikologo Klinikoeak, BADE-BAME, Erizainek eta Gizarte Langileek.).

**Lanbide sanitarioen etengabeko Prestakuntza ziurtagiria eskatuta.



JARDUNALDIA

PSIKIATRIA ZERBITZUAREN 25 URTEURRENA. 1995 – 2015

PROGRAMA

9 H. JARDUNALDIAREN AURKEZPENA

Pilar Regúlez Barrualde-Galdakao ESIren zuzendari medikoa.

Jose Martín Zurimendi Psikiatriako zerbitziburua. Barrualde –Galdakao ESI.

09:15-10:30. PROGRAMA ASISTENTZIALAK BURU NAHASMENDU LARRIETAN.

Sarrera eta moderatzaile zereginak: **Iñaki Egiluz**, Psikiatriako zerbitziburua. Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESI.

Eztabaida-panela. **Ana González Pinto**, klinikako burua. Arabako U.O.

Interbentzio eta ikerketa eredu berriak Nahasmendu Bipolerrean.

Patxi Gil. Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearen Lehenak Programa.

Bada zerbait berria, Eskizofrenian garatu daitekeena.

Luis Osa. Bilbo-Basurtu ESI

Berritasunak eta alternatibak aurreikus daitezke depresio larriaren tratamenduan.

10:30-11:45 AURRERAPENAK NEUROZIENTZIAN ETA NARRIADURA KOGNITIBOAN

Sarrera eta moderatzaile zereginak: **Angel Padierna**. Psikiatria Zerbitzua. Barrualde-Galdakao ESI.

Eztabaida-panela. **Juan Medrano**. Zerbitziburua –Ezkerraldea. BOMS.

Psikogeriatría psikiatriako arduraren partekatua ikuspegitik.

Natxo Quemada. Aita Menni Ospitaleko zuzendaria. Arrasate.

Interbentzio-ikupuntuak buru-gaitzetan.

Javier Tirapu. Argibide Fundazioa. Iruñea.

Aurrerapenak azterketa neuropsikologikoan.

12:00-13:15. ERRONKAK PSIKOTERAPIAN

Sarrera eta moderatzaile zereginak: **M. Angel González Torres**. Psikiatriako zerbitziburua. Bilbo-Basurtu ESI.

Eztabaida-panela.

Rodrigo González Pinto. PAE Bilbo

Terapia laburrak eta erronkak terapia dinamikoetan.

Eduardo Martínez. Miguel Servet, Zaragozako Unibertsitate Ospitalea.

BAME –BADE prestakuntza eta interbentzioa eta familia terapia, osasun sistema publikoan

Patricia Caballero. Lehenak Programa. Barrualde eta Uribe.

Psikosisia psikoterapeutikoen interbentzio: Erronkak eta kontraesanak.

13:15-14:30. PROGRAMA ASITENTZIALEN KUDEAKETA EREDU BERRIAK

Sarrera eta moderatzaile zereginak: **J. Ramón Ipiña**. Psikiatria Zerbitzuko psikiatra. Barrualde-Galdakao ESI.

Eztabaida-panela. **Miguel A. Jiménez Arriero**. 12 octubre Ospitaleko Psikiatriako zerbitziburua. Madril.

Gailuetatik Programetara, erakunde asistentzial konplexuen aurrean.

Rafael Segarra Bizkaia. Ezkerralde-Enkarterri-Cruces ESI

Lehenak programaren moduko ekiteko eta/edo programa berriak garatzeko beharra.

Pablo Orgaz. Bilbo-Basurtu ESI.

Interbentzioak nortasunaren nahasmenduan: eskari berriak, erantzun berriak.

14:30. AMAIERA. Jon Guajardo. Barrualde-Galdakao ESIren zuzendari gerentea.